



## BELAUNALDIKLAB - UNITATE DIDAKTIKOA

### DESKRIBAPENA

Lan mundua aztertu eta baloratzeko Belaunaldien arteko hizketa eta informazio luzapena.

### HELBURUAK

- Lan munduari buruzko hausnarketa pertsonala lantzea
- Belaunaldien arteko harremana bultzatu (helduak-gazteak)
- Galtzar dauden lanek eta sortu diren lan berriek dakarten lan eraldaketari buruzko gogoeta
- Podcast-ak tresna hezitzaile bezala

### KONPETENTZIAK

Lan saio honetan, zehar konpetentzia hauek lantzen dira:

- Hitzezko, hitzik gabeko eta komunikazio digitalerako konpetentzia
- Ikasteko eta pentsatzeko konpetentzia
- Elkarbizitzarako konpetentzia
- Ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia
- Norbera izaten ikasteko konpetentzia

Diziplina baitako oinarrizko konpetentzietatik hauek lantzen dira saioan:

- Hizkuntzarako konpetentzia
- Teknologiarako konpetentzia
- Konpetentzia soziala eta zibikoa

### JARDUEREN SEKUENTZIA

- Hasierako hausnarketa pertsonala
- Talde txikitan elkartu eta partekatu hausnarketa pertsonalak
- Talde txiki bakoitzak podcast bat entzun
- Entzundakotik ideia nagusiak atera eta aurretik egindako hausnarketa berriz ere baloratu. Guztiarekin batera ideia nagusiak ezarri taldean (hausnartutakoa, sortutako ideiak, entzundakotik gustuko zerbait, edo ez gustukoa...)



BelaunaldiakLab

- Talde txikian, etorkizuneko ogibideak eta galtzar daudenen zerrenda
- Talde osoa elkartu eta ordenean talde txiki bakoitzak egindako ekarpenak aipatu eta komentatu.
- Debatea sortu edo bultzatu
- Azken hausnarketak

## **BALIABIDEAK**

- Mahaiak eta aulkiak partaide guztientzat
- Folioak
- Boligrafoak
- Arbela
- Ordenagailuak/mugikorrak podcast-ak entzuteko
- Aurikularrak
- Ariketen orriak

## **DENBORA ETA LEKUAREN ANTOLAKUNTZA**

- Espazioa ikastetxearen arabera, ikasgela edo beste gela batean.
- Non mahaiak eta aulkiak dauden taldeko partaide guztientzat.
- Hasieran talde txikietan (4-6 ikasle) eta gero talde handian lan egingo da.

## **EBALUAZIOA**

- Ikasleen parte hartzea izango da ebaluatuko den lehen neurria
- Ikasleen hausnarketa pertsonala saioaren amaieran komentatuko da eta orriak jasoko dira.
- Taldeko laburpena eta lanpostuen zerrendako dokumentuen orriak jasoko dira ebaluatzeko.